MENDAROKO UDALA

| JARRAIBIDEAK | INSTRUCCIONES |
|---|---|
| **KONTSUMO BONUAK**<br>**Gabonetako kanpaina 2020** | **BONOS CONSUMO**<br>**Campaña Navidad 2020** |
| Mendaroko Udalak, osasun-krisiak sortu duen egoera ekonomikoa arintzeko, eta tokiko establezimenduetan kontsumitzeko ohitura sustatzeko eta errazteko interesa dela-eta, zenbait bonu eskainiko dizkie saltoki eta zerbitzuei, kontsumoaren heren bateko deskontua eskaintzen dutenak. | El Ayuntamiento de Mendaro, con el fin de paliar la situación económica que ha creado la crisis sanitaria, así como por el interés de fomentar y facilitar el hábito de consumo en los establecimientos locales, ofrecerá a comercios y servicios cierto número de bonos que ofrecen un descuento de un tercio del consumo. |
| Bonuak 30 €-koak dira, eta 10 €-ko deskontua dute; hau da, 20 €-ko ordainsaria eta 30 €-ko erosketa. | Los BONOS son de 30€ con 10€ de descuento, o lo que es lo mismo Paga 20 € y Compra por valor de 30 €. |
| Bonuen iraungipena: 2021/01/30. | Caducidad de los BONOS: 30/01/2021. |
| Kanpainarako 8.000,- € esleituko dira, 1.0230.48001.230.99 partidako 2020ko Aurrekontuko COVID.91LAGUNTZAK. GIZARTE SUSTAPENA izenekoaren kargura. | Para la campaña se asignarán 8.000,- € con cargo a la partida 1.0230.48001.230.99 denominadas AYUDAS COVID19. PROMOCIÓN SOCIAL del Presupuesto de 2020. |
| BONUEN FUNTZIONAMENDUA: | FUNCIONAMIENTO DE LOS BONOS: |
| Kontsumitzaile bakoitzak erosketak edo kontsumoak egin nahi dituen Mendaroko establezimenduan **erosi** ahal izango ditu bonuak, **20 euro ordainduta**, eta **30 euroko erosketarekin** konpentsatuko du. Kontsumoak partzialak izan daitezke. | Cada consumidor podrá **comprar** bonos en el establecimiento de Mendaro que desee hacer las compras o consumos **abonando 20 €** que compensará con **30 € de compra**. Los consumos podrán ser parciales. |
| PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:<br>1. Bere kontura edo autonomoki lan egiten duen pertsona fisikoa izatea edo pertsona juridikoa izatea.<br>2. Mendaroko udalerriko txikizkako merkataritzan, ostalaritzan eta antzekoetan ekonomia-jardueren gaineko zergaren matrikulan alta emanda egotea dagokion epigrafean 2020ko urriaren 26an.<br>3. Diru-laguntzaren eskatzailea jardueraren ustiapenaren titularra izatea.<br>4. Herritarrentzako zabalik dagoen lokal bat izatea Mendaroko udalerrian.<br>5. Gizarte Segurantzako erregimenean edo dagokion mutualitate profesionalean eta Ogasunean alta emanda egotea.<br>6. Egunean izatea Mendaroko Udalarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak, bai eta | REQUISITOS DE PARTICIPACIÓN:<br>1. Ser persona física trabajadora por cuenta propia o autónoma o persona jurídica.<br>2. Figurar dado de alta en la matrícula del Impuesto sobre Actividades Económicas en el municipio de Mendaro en el epígrafe correspondiente a fecha de 26 de octubre de 2020.<br>3. Que la persona solicitante de la subvención sea titular de la explotación de la actividad.<br>4. Disponer de un establecimiento abierto al público en el término municipal de Mendaro.<br>5. Figurar de alta en el régimen de la Seguridad Social o en la Mutua profesional correspondiente y en Hacienda.<br>6. Hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con el Ayuntamiento de Mendaro, con la Hacienda Foral y la Tesorería General de la Seguridad |

MENDAROKO
UDALA

| | |
|---|---|
| dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere. Baldintza hori eskaera aurkezten den egunetik dirulaguntza ordaintzen den egunera arte bete behar da, hala badagokio. | Social; así como en el cumplimiento de sus obligaciones por reintegro de subvenciones. Este requisito debe cumplirse desde la fecha de presentación de la solicitud hasta la fecha del pago de la subvención, en su caso. |
| 7. Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne. | 7. No estar sancionada, penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o estar incursa en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o de la Ley Orgánica 3/2007, de 30 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. |
| 8. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeraren batean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez. | 8. No estar incursa en alguna de las restantes circunstancias previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, para obtener la condición de beneficiario de subvenciones. |
| PROZEDURA ETA EPEAK. | PROCEDIMIENTO Y PLAZOS: |
| Udalak 40 bonu emango dizkie hala eskatzen duten jendearentzat irekitako saltokiei (dendei eta zerbitzuei). | El Ayuntamiento, entregará a todos los establecimientos (comercios y servicios) abiertos al público que lo soliciten, 40 Bonos. |
| Establezimenduek dagokion publizitatea establezimenduko leku ikusgarri batean jarri beharko dute. | Los establecimientos deberán colocar la publicidad correspondiente en un punto visible del establecimiento. |
| Bonu bakoitza Udalari itzuliko zaio, 30 € edo gehiagoko erosketa-tiketekin batera, 10 €-ko dirulaguntza jasotzeko, 2021eko **urtarrilaren eta otsailaren, 1etik 6ra** bitartean. | Cada Bono se devolverá al Ayuntamiento junto con los tickets de compra por valor igual o superior a 30 € para recibir la subvención de 10 €, en los días **1 a 6** de los meses de **enero y febrero** de 2021. |
| Denda bakoitzak erabakiko ditu **bonuak banatzeko irizpideak**, bai eta erosketak itzultzeko irizpideak ere.<br>Ezin izango dira tabakoa edo alkohola erosteko erabili. | Cada tienda establecerá los **criterios de reparto de bonos** como considere oportuno, así como de la devolución de compras.<br>No podrán utilizarse para compra de tabaco o alcohol. |
| Kontsumo-bonuak abenduaren 14tik 2021eko urtarrilaren 30era arte erabili ahal izango dira. | Los bonos de consumo podrán utilizarse desde el 14 de diciembre hasta el 30 de enero de 2021. |

Mendaron, 2020ko abenduaren 1ean.
ALKATEA,
Iñaki Arregui Uria